

PSE-EE-REN KRISIA. Rojori buruzko hitzak desegokiak zirela diote

Neutraltasunez jokatzeko eskatu diote Jauregiri Huertasek eta Lopezek

Inoren hautagaitza bultzatu nahi zuela ukatu egin du Jauregik



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Manuel Huertas, Patxi Lopez, Ramon Jauregi eta Javier Rojo, aurreko agerraldi batean.

Erredakzioa | DONOSTIA

Ramon Jauregi PSE-EEko kudeaeta batzordeko presidentek ukatu egin zuen atzo Javier Rojo duela gogokoena alderdiko idazkari nagusia izateko. Hala, zuzendu egin zituen herenegun SER irratia egindako adierazpenak. «Jarrera integratzaileena» Rojok zuzentzen duen taldeak duela esan zuen Jauregik. Txosten politikoa egiteko «kudeaketa batzordearen arrakasta» gehien adierazten duen taldea Rojorena dela gaineratu zuen, «atxikimendu filonazionalistak» ezabatu dituelako. Euskal sozialismoa bitan banatuko ez duen sintesi-estrategiaren alde azaldu zen Jauregi.

Atzo, berriz, Jauregik zuzendu egin zuen esandakoa. Patxi Lopez Bizkaiko PSE-EEko idazkari nagusiak eta Manuel Huertas Gipuzkoako txostenean «integrazioa eta adostasunerako ahalegin bera» egin dutela adierazi zuen. «Ziur nago haien indarra erabakigarria izango dela zuzendaritza kohesionatua eta indartsua lortzeko», gaineratu zuen Jauregik.

Hautagai zerrendei buruz ez duela «hitz egin, ez eta egingo ere» zehaztu zuen, «ez delako horretarako unea eta ez delako nire zeregina horretaz hitz egi-

RAMON JAUREGI

Huertas eta Lopezen indarra «erabakigarria» izango dela adierazi du, «zuzendaritza kohesionatua lortzeko»

HUERTAS-LOPEZ

Jauregik zehurtiaz jokatu ezean akordiorako espiritua ahuldu egingo dela nabarmendu dute

tea» Batzorde Nazionala otsailaren 9an bildu arte. «Hortik aurrera hautagai izan nahi dutenek ofizialki iragartzeko aukera izango dute, eta alderdiko kideek, beraiek izendatutako ordezkarien bitartez, azken erabakia hartuko dute martxoaren 23 eta 24ko Kongresuan».

Adierazpen «desegokiak»

Bide beretik, Manuel Huertas eta Patxi Lopez poztu egin ziren atzo Jauregik bere hitzak zuzendu dituelako. «Pozen gaitu Ramon Jauregik, modu batean edo bestean, bere adierazpen desegokiak zuzendu izanak», azaldu zuten bi sozialistek kale-ratutako idatzi batean.

Huertas eta Lopezen ustez, etorkizunean «zuhurtiaz jokatu beharko da PSE-EEen dauden sentsibilitateak iraintzea saihesteko». Jarrera hori hartuko ez balitz, «kudeaketa batzordeailearen akordiorako espiritua eta neultratasunez jokatzeko konpromisoa ahuldu egingo litzateke».

Gipuzkoako eta Bizkaiko PSE-EEko idazkari nagusiek gogoratu zuten, «alderdi barruan akordioa bilatzeko naharen ondorioz —horren emaitza nagusia Kongresurako txosten bat egitea izan da— alderdiaren sektore nagusi batek bere planteamendu batzuei uko egin behar izan die. Horren helburua, ideien eztabaida egitea da».

Hala, Kongresuari begira kudeaketa batzordeak egin duen txostenean «ageri ez diren postulatuak ezin dira 'atxikimendu filonazionalistatza' hartu», azaldu zuten bi buruzagi sozialistek. Beraien ustez, hori adieraztea «euren burua soilik sozialistatza duten taldekideekiko errespetu eza litzateke».

«Gainera, horrela jokatzek eskuineko sektoreen eraso interesatuei bizigarria ematea litzateke. Izan ere, sektore horiek ofentsa eta deskalifikazioaren terminologia erabiltzen dute gure kontra», esan zuten bi idazkari nagusiek.

BATASUNA. Bake jokaleku bat iradokiko du

Konponbide demokratiko baten aldeko proposamena egingen du gaur Batasunak

Erredakzioa | IRUÑA

Konponbide demokratikoaren aldeko proposamena plazaratuko du Batasunak gaur, Iruñeko Mira antzokian egingen duen ekitaldi politikoan. Batasunak aurkeztuko duen ekarpenak bake jokaleku bat proposatzen du, eta sei puntuko bost orrialdek osatzen dute, Batasunak EGUNKARIARI aurreratu dienez.

Batasunak bakearen inguruan egiten dituen gogoeta eta proposamenak zehaztu nahi ditu. Taldearen arabera, euskal gatazkaren iturburua «Euskal Herriaren existentziaren ukazioa da, eta, ondorioz, dagozkion eskubideen ukazioa eta urratzea». Beraz, «etengabe mantenduen jokaleku hori» aldatu behar dela dio Batasunak, eta egin behar hori izanen duela «lehentasuna».

Ildo berean, Batasunak esaten du «bakea eraikitzea eskubideez mintzatzea» dela. «Bakea eskubide guz-

tiak aitortzea eta onartzea da. Batasunarentzat, bakea eskubideen erabilera demokratiko eta baketsua errespetatzea da». Batasunaren xedea «eskubide guztiak, Euskal Herri osoan, euskal herritar ororentzat» lortzea litzateke.

Ildo berean, taldeak dio bakea eraikitzea «autodeterminazio eskubideaz aritzea» dela. Batasunarentzako «autodeterminazio eskubidearen aitormena Euskal Herriarentzat bake-eskenatokia eraikitzeko gakoa da».

Batasunak autodeterminazio eskubidearen «subjektua Euskal Herria» dela dio eta bere gauzatzea «euskal herritar orori» dagokiola. Halaber azpimarratzen du eskubide hori ez dela «inoren aurkako tresna moduan planteatu behar». Izan ere, uste du autodeterminazio eskubidea «bakerako tresna» ez ezik, «elkarbitza politikorako eta eskubideen berdintasunerako bermea» ere badela.

HB-REN DIRU LAGUNTZAK HAUTESKUNDEETAN

Inkonstituzionaltasunari buruzko argudioak eskatu dizkie epaitegiak aldeei

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Espainiako Auzitegi Nazionalako Administrazio Gaietako 2. Atalak inkonstituzionaltasunari buruzko argudioak aurkezteko esan die aldeei, HBren hauteskunde-etako diru laguntzen auzian. Jakina denez, Espainiako Barne Ministerioak ez dizkio ordaindu HBri 1982 eta 1986 urteetako diru laguntzak, horrela agintzen duten zenbait epai tartean izan arren. Epaiek bete ez dituelako, isunak jarri dizkio Auzitegi Nazionalak Ministerioari.

Epaia ez betetzeko zenbait argudio aurkeztu zituen Estatuko abokatuak urtarrilaren hasieran, eta argudio nagusi gisa Aurrekontuen Laguntzarako Legea erabili zuen (24/2001). HBko abokatuak lege hori ez dela aplikagarria argudiatu zuten, joan den astean aurkeztutako alegazioetan. Legeak

atzerako eraginik ez izatea aipatzen zuten oinarri gisa. Hala ere, legea aplikagarria zela ebazita ere, lege horrek Espainiako Konstituzioko zenbait eskubide urratzen zituela adierazi zuten.

Epaitegiak aintzat hartu ditu HBk aurkeztutako argudioak, eta inkonstituzionaltasunaren inguruko argudioak emateko eskatu die aldeei. Lau kasu aipatu ditu: atzeraeraginkortasuna, kalteordaina jasotzeko eskubidea, tutoretza judizial efektiborako eskubidea eta lege organikoari dagozkion gaiei eragiten diela.

Hamar eguneko epea dute aldeek alegazioak aurkezteko; Auzitegiak ondoren erabakiko du inkonstituzionaltasun galdea planteatzen duen. Horrela erabakiz gero, Auzitegi Konstituzionalak aztertu beharko luke. Bitartean, isuna bertan behera uztea erabaki du epaitegiak.